

## Festa aparta

Gorritaran auzoan  
igande ederra izan  
dute txintxurrina  
jokoarekin ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2005-06-29 ▶ III. urtea ▶ 646.zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Udan Tolosan gau giro polita sortzeko ekitaldiak izango dira

**MUSIKA** ▶ Etzi Mariachi Artizarren  
berbena izango da plaza Berrian,  
musika eskolako ikasleen aldetik

**IKUSKIZUNAK** ▶ Iraila bitarte  
musika, zinema eta dantza  
ikuskitzen eskainiko dituzte ▶ 2



Patxi San Sebastian Artizar musika taldekoa eta Andoni Iturzaeta Kultur zinegotzia atzo, Gaur giroaren aurkezpenean. IRATXE ETXEBESTE

**ANOETA** ▶

**Rafa  
Uribarren  
diputatu  
izango da**

Landa Ingurunearen  
Garapenean ▶ 4

**ABALTZISKETA** ▶

**Beroa eta  
giroa zaldi  
lasterketan  
igandean**

Aginagaldek irabazi  
zuen proba ▶ 5

**BERASTEGI-IBARRA** ▶

**Tailerretako  
ikasleen  
lanak  
ikusgai** ▶ 6

**TOLOSALDEA** ▶

**San Pedro  
Eguna da  
gaur**

Asteasu, Urkizu  
eta Leaburun ▶ 4

**ASTEASUN  
SANPEDROAK**

San Pedro jai  
zoriontsuak  
igaro ditzazuela  
opa dizuegu  
herritarroi

Asteasuko Udala

**Ekainak 29 San Pedro eguna**

10:00: Txistularien diana  
11:15: Meza Nagusia  
18:30: Herriko musikariak  
23:00: MARIACHI REAL AZTECA

**Ekainak 30 Jubilatuen eguna**

10:30: Meza  
12:30: Bertso eta trikiritxa  
14:30: Jubilatuen bazkaria  
19:30: X. dantza solteko txapelketa  
23:00: TRAKETS

**Uztailak 1 Koadrilen eguna**

Eguerdian: bazkaria  
18:00: Zezen txiki eta poney-ak  
arratsaldea zehar: Urolako trikitilariak  
21:00: herri afaria

**Uztailak 2 Haurren eguna**

11:00: Krosa eta marrazketa lehiaketa  
14:00: Haurren bazkaria eta pailazoak  
17:00: XIX. mus txapelketa herrikoa  
23:00: ABIBA diskojaia

**Uztailak 3**

12:00: Pala txapelketaren finala  
Ondoren sagardo dastaketa  
18:30: Herri Kirolak  
Ondoren XUKAN

GAU GIRO ▶

# Udako gau apart horietarako

Uztaitetik irailera askotariko ekintzak daude prest: aurten ere musika, zinea eta dantza uztartuko ditu Gau Giro-k

## IRATXE ETXEBESTE

Asko eta asko dira urtero udako oporraldietan herritik alde egiten dutenak. Denek ez dute, ordea, ihes egiten, eta azken horiekin pentsatuta antolatuta dute aurten ere Tolosako udal ordezkariak Gau Giro izenarekin biltzen duten ekitaldi sorta. Bada uztaitetik irailera bitarte izango den Gau Giro-k musika emanaldiak, dantza ikusizuna eta aire libreko zinema saioak uztartuko ditu, urteroko moduan. Ostiral honetan izango da lehen ekitaldia, Tolosako Mariachi Artizar taldearen kontzertuarekin, Plaza Berrian.

Tolosako Udal Musika Eskolako biolin, biola eta biolontxelo ikasleek osatutako taldea da Gau Giro irekiko duena. Musika Eskolan biolin eskolark ematen dituen Patxi San Sebastianek eman zituen atzo, Tolosako Udaleko Kultur eta Jai zinegotzi Andoni Iturzaetarekin batera, emanaldi horri buruzko argibideak, eta Mariachi Artizarren saioa «berbena» modukoa izatea nahi dutela zioen, hala, musikariek «kontzertua ikustera doazenak girotzeko modua izango dutelako». Bestalde, eta «musika mota hori kalean jotzeko delako», areto itxi batean beharrean Plaza Berrian jardutea erabaki dute.

Errepertorio zabala osatu du talde horrek larunbaterako:

## PANTAILARI AGURRA

Leidorreko lanekin hasi aurretik, sei zinema saio eskainiko dituzte asteburuan; haurrek doan, helduek 2 euro

«Abesti batzuk ezagunak dira oso; beste batzuk ez hainbeste». Laguntzaile gisa izango dituzte beste instrumentu batzuk jotzen dituztenak ere; hala ere, «taldea haizeko instrumentuekin soilik osatutakoa da».

Gau Giro-ko egitaraua «oretakua» da Iturzaetaren esanetan: «Dauden ikuskizunetatik hiru tolosarrek osatutako taldeek eskainitakoak izango dira; beste bi Euskal Herriko musikarientan eta gainerako biak nazioarteko taldeenak». Zinemari dagokionean, bestalde, «sona handia lortu duten bi filma» ekarri nahi izan dituzte argitu du Kultur zinegotziak.

Esan beharrik ez dago, urtero bezala, Gau Giro programaren baitan uztaitetik, abuztuaren baitan irailera, abuztuaren baitan irailera, Fronton kafetegian eskainiko dituzten ikuskizun guztiak doakoak izango direla aurten ere.

## Leidorreko pantailari agurra

Datorren astean hasiko dira Leidor zinema antzokiko lanak egiten, baina, aurretik, bertako pantaila erraldoiari agurra eman nahi izan diote udal arduradunek eta sortu berri duten zinemazaleen taldeak; sei zinema saio antolatuta dituzte horretarako asteburuan. Hiru film eskainiko dituzte: *La guerra de las galaxias*, *Euriaren seme-alaba* eta *11:14 Destino fatal*. Ostiralean eta larunbatean (uztailak 1 eta 2) 19:30ean eta igandean (uztailak 3) 22:00etan eskainiko dute lehen; larunbatean 16:30ean bigarrena haurrentzat eta larunbatean 22:00etan eta igandean 19:30ean hirugarrena. Hurren filma doakoa izango da; gainerakoek 2 euro balio dute.



Patxi San Sebastian Musika Eskolako biolin irakaslea eta Andoni Iturzaeta Kultur zinegotzia, atzo. I. ETXEBESTE

## EGITARAUA ▶

Musika emanaldiak, dantza ikuskizuna eta zinema saioak dira, uztaitetik irailera, herriko hainbat gunetan Gau Giroren baitan ikusi eta entzun ahal izango direnak. Hona hemen eguneguneko egitaraua:

## UZTAILAK 1, OSTIRALA

**Mariachi Artizar.** Tolosako Udal Musika Eskolako biolin, biola eta biolontxelo ikasleek osatutako taldea da Artizar, eta larunbat honetan eskainiko dute emanaldia Plaza Berrian 22:30ean. Tronpetak, teklatura, kontrabaxua eta eskusoinua izango dituzte laguntzaile kontzertu berezi horretarako.

## UZTAILAK 8, OSTIRALA

**Bidaia bikotea.** Mixel Ducau eta Caroline Phillips ariko dira Plaza Berrian 22:30ean hasita.

## UZTAILAK 15, OSTIRALA

**Gonzalo Tejada Trio.** Gonzalo Tejada kontrabaxuan dela, saio berezia eskainiko du egun horretan Fronton kafetegian Mikel Anduezaen (saxofoi

altua eta sopranoa) eta Iñaki Salvadorren (pianoa) laguntzarekin. Euskal Herriko hiru musikari horiek elkarrekin jardungo dute, bada, 22:30etik aurrera.

## UZTAILAK 21, OSTEGUNA

**Kolonbiako balet folklorikoa.** Euskal Herria plazan eskainiko dute saioa dantzari kolonbiarrek 22:30etik aurrera. Haien herrialdeko koreografiak bai, baina «gure kulturaren oinarritutakoak ere» interpretatuko dituztela esan dute antolatzaileek.

## UZTAILAK 29, OSTIRALA

**Musika Banda.** Tolosako Musika Bandak aparteko emanaldia eskainiko du egun horretan Plaza Berrian. 22:30etik aurrera, euskal musika herrikoari eskainitako kontzertua eskainiko du.

## ABUZTUAK 9, ASTEARTEA

**Zinema kalean.** Urteroko moduan, aurten ere Amarozen auzoan izango da aire libreko

zinema emanaldia. *Los chicos del coro* filma hautatu dute antolatzaileek egun horretarako; 22:30ean hasiko da saioa.

## ABUZTUAK 10, ASTEAZKENA

**Zinema kalean.** Bigarren saiorako *El penalti mas largo del mundo* filma hautatu dute. Aire libreko zinema emanaldi hori ere Amarozen auzoan izango da, 22:30ean.

## ABUZTUAK 26, OSTIRALA

**Julia Leon.** Julia Leonen kontzertua izango da egun horretan Plaza Berrian: hain zuzen ere, sefardien musika eskainiko du Leonek 22:30etik aurrera.

## IRAILAK 2, OSTIRALA

**Tolosa Session.** Tolosako musikarientan jazz emanaldia izango da irailaren 2an Fronton kafetegian 22:30ean. Txema Garcesak (baxua), Mitxel Longaronek (bateria) eta Juanxto Zeberio (pianoa) osatutako taldea da hori.

hitza **txokoa** lagunen

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **KARMELE** ileapaindegia zozketatutako **3 orraztu**aldi eta beren tratamendu berezien irabazlea

NEKANE EGUINO OLABE (TOLOSA)



San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

HEZKUNTZA ▶

# Truketik haratago

Ingalaterran izan dira Hirukideko hainbat ikasle; hizkuntza ikasiz, elkar ezagutzeko eta kulturak trukatzeko xedearekin



Hirukide Eskolapioetako DBH 2ko ikasleak, Gartxot Agirre eta Maite Ulazia irakasleekin, Ingalaterran. HITZA

## LEIRE MONTES

Duela hiru urte Ingalaterrako eskola batekin trukea egin zuen Eskolapioen ikastetxeak —orain Hirukide—. Esperientzia berria zen guztiarentzat, baina hasitako harremanari jarraipena ematea erabaki zuten, arrakasta ikusita. Harrezkero, urtero errepikatu dute trukea. Aurten ere, itzuli berriak dira Ingalaterran izan diren Hirukideko ikasleak.

DBHko 2. mailako 34 gaztek eta 4. mailako 19k hartu dute parte aurtengo trukean. Gartxot Agirre eta Maite Ulazia irakasleak izan dira lehenekin, Lancheester-en. DBH 4koekin, Leire Arruti, Naiara Alkorta eta Tracy Fleming irakasleak; bi taldetan banatu dituzte ikasleak: 9 Stourport-en izan dira, eta 10 Peterchurch-en.

Irakasleek HITZARI azaldu diotenez, «ingelesari bultzada emateko asmotan jaino zen trukea, eta xede berarekin jarraitzen du aurrera. Cambridge-ko azterketak egiteko aukera eskaintzen dugu ikastetxean, baita Batxilergo anitza ere... Horri guztiari bideratuta dago ekimena». Hala, Ingalaterran izan diren bitartean ingeles eskolak jaso dituzte DBH 4koak, hango irakasleekin. «Hizkuntza ikasteko eta, batez ere, praktikatzeko aukera polita izan da».

Ingelesari bultzada ematea ez da, dena den, ekimenaren helburu bakarra. «Hemengo eta hango ikasleen arteko elkar ezagutza bultzatzea eta sendotzea, eta kulturen arteko trukea sustatzea» ere du xede. Horregatik, ingurua ezagutzeko bisitak egin dituzte DBH

4koek arratsalde, eta hara eta hona ibili dira ere DBH 2koak, egun osoz. Era berean, hango familien etxeetan igaro dituzte egunak tolosarrekin. «Horrela, hango ohiturak, familia giroa eta bizimodua ezagutzea errazagoa da, eta guk hori bilatzen genuen», azaldu dute Hirukide Eskolapioetako irakasleek. Familiak «oso ondo zaintzen» dituztela azpimarratu dute, era berean: «Etxean bezala sentiarazi gaituzte guztiok».

Hasiera batean dena arrotza egin zitzaieiela onartu dute, hala ere: «Jana, ordutegia, ohiturak, ikastetxeetako funtzionamendua... Denak harritu zituen ikasleak». Segituan, baina, moldatu ziren. Eta «gustura» itzuli dira guztiak.

## Euskal Herria eta euskara

Hirukideko irakasleek gaztelaniako eskolak eman dizkiete ingelesei. «Zenbait hitz euskaraz esateko gai» direlako pozik dira Tolosakoak. Izan ere, Euskal Herria eta euskara ezagutzera ematea ere izan dute helburu Hirukidekoek.

Tolosakoak Ingalaterran igarotzen egunetan, Nazioen Eguna egin zuten ikastetxeetako batean, eta euskaldunak gonbidatzea bururatu zitzaizkien herriari buruz gehiago jakiteko asmoz. Hala, Euskal Herriari eta euskarari buruzko jarduna aurkeztu zuten Tolosakoak. «Oso esperientzia aberasgarria izan zen guztiarentzat. Gainera, askok ezagutzen zuten Euskal Herria, eta interes handia erakutsi zuten gure herriarekiko eta euskararekiko».

Hangoekin sortutako harre-

mana da gehien bete dituenen. «Oso ondo pasatu dute. Lagun berriak egin dituzte, eta harreman hori mantentzeko ilusioz daude». Batezuek jada elkar ezagutzen zuten, Ingalaterrako gaztetxoak Tolosan izan zirelako, bi taldetan banatuta, iazko urrian eta aurtengo otsailan. «Hona etorri zirenean hemengo familietan hartu zuten ostatu. Gure ikastetxeetakoak hara joatean hartutako gaztetxo horren etxean egotea saiatu ginen. Hala, harreman hori ez da bukatzen. Hori baita garrantzitsuenak, sortutako adiskidetasuna».

## Udako ekintzak ikastetxean

Ikasturtea amaitu berri da, baina Hirukide ikastetxeak udan ere zenbait ekintza antolatzen ditu. «Haur eta gazteen hizkuntza normalakuntza lortzea, neska-mutilen arteko harremana sendotzea, naturarekiko begirunea eta errespetua sortzea, eta gurasoei zerbitzu integrala eskaintzea» dira, besteak beste, helburuak.

Ekaina amaieran eta uztailan 3 eta 8 urte bitarteko haurren-tzat ludoteka zerbitzua dute ikastetxean. Era berean, uztailan haurtzaindegi zerbitzua izango dute 0 eta 3 urte arteko haurrentzat, 07:30etik 19:00-etara.

Kirikiko aisialdi taldeak, bestalde, prest ditu bere udako kanpamentuak. 10-12 urtetakoak Barriara (Araba) joango dira, 12-14 urtetakoak Belogean (Nafarroa) izango dira, eta 14-16 urtetakoak Arrens eta Belogea arteko mendi ibilaldia egingo dute, Pirinioetan.

ANTZERKIA ▶

## 'Un poco de iniciativa', gaur, Amaroizko Astean

Amarozko Antzerki Artisauak antolatutako Antzerki Asteak aurrera jarraitzen du. Gaur, etxekoen txanda izango da auzoan: Amaroizko Antzerki Artisauak *Un poco de iniciativa* antzezlan taularatu dute, 22:00etan, auzo etxeko areto nagusian. Bihar, berriz, Behi-Bi's taldeak *Ni arratoi* obra eskainiko du, 18:00etan, leku berean. Asteburuan Amaroizko jaiek hartuko dituzte auzoko txokoak.

PALA ▶

## Tolosa CFko Pala Txapelketan izen-ematea zabalik

Uda guztietan bezala, Tolosa CFk binakako Pala Txapelketa antolatzen du. 37. edizioa izango da aurtengoa eta, beti bezala, Berazubiko frontoian jokatu da uztailaren, gomazko pilotarekin. Izen-ematea epea zabalik da uztailaren 2a arte, elkartearen bulegoetan, 17:00etatik 20:00etara (Berazubi. 943 67 17 49) edo 607 44 76 77an (Pello). Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte, eta besteek 20.

GAZTERIA ▶

## Paintball-a eta karts-ak, gazteentzat

Uda Gazte programaren barruan, Udako Gazteria sailak hainbat ekintza prestatu ditu 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Hain zuzen ere, bi ekimen antolatu dituzte: alde batetik, paintball-a, uztailaren 20an; eta, bestalde, karts-etara irteera, uztailaren 22an. Gazteria sailak azaldu duenez, «ekintza hauen programazioa gazte foroetako gazteekin batera egin dira eta, beraz, gazteen gustuak izango direla dudarik ez dago». Topagunetik bideratzen da programazio hau; hortaz, ekintza hauetan parte hartu nahi duten gazteek Kultur Etxera jo besterik ez dute. Hain zuzen ere, gaurtik ostirala bitarte dago bertan izena emateko aukera.

MATRIKULAZIOA ▶

## Musika Eskolan izena emateko epea amaitzeko

Eduardo Mokoroa udal musika eskolan amaitzeko 2005-2006 ikasturterako izena emateko epea. Interesa dutenek bihar arte dute horretarako aukera, Musika Eskolan bertan (Pablo Gorosabel), 09:30etik 13:30era. Argibide gehiago nahi duenak 943 65 15 93 telefono zenbakira dei dezake.

KZGUNEA ▶

## Uztailerako hainbat kastaro aukeran

Tolosko KZguneak zenbait ikastaro antolatzen ditu uztailerako. 20 ordukoak dira guztiak, eta uztailaren 11tik 22ra eskainiko dira, bi ordutegitan: 08:00etatik 10:00etara lehena, eta 10:00etatik 12:00etara bigarrena. Informazio gehiago KZgunean bertan (Pablo Gorosabel, 34 bis. 943 65 37 20).

**Titulazio Ofizialak**  
**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**  
 SARRERA: D.B.H./ HSAOL BATXILERGOA EDO ANTZEKOAK

**DISAËNU ETA KREAZIO-AHALMENEAN**  
 OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

**DISAËNU ETA KREAZIO-AHALMEN SAËLA**

- KREATIBITATE AZTERKETA
- KOLORE, MARRAZKETA ETA OSAKETA
- PUBLIZITATE DISAËNUA ETA MARKETING
- IRUDI KORPORATIBOA ETA PUBLIZITATEA
- IKUSMEN KOMUNIKAZIOA

**TEKNOLOGIA BERRIETAKO SAËLA**

- LOGOTIPO DISAËNUA
- IRUDIEN TRATAMENDU DIGITALA
- MAKETAGINTZA ETA PRODUKZIO EDITORIALA
- INTERNET, WEB DISAËNUA & MULTIMEDIA
- ARGAZKILARITZA DIGITALA

**ceinpro**

2005-2006 KURTSA  
 Hezik. Pseelakua 99  
 20008 DONOSTIA  
 Gipuzkoa  
 Tel. 943 310875  
 Fax 943 310875

**www.ceinpro.es**

SANPEDROAK ▶

# Egun nagusia ospatuko dute gaur

Asteasun, Leaburun eta Urkizun hainbat ekitaldi izango dira jaien baitan

## ERREDAKZIOA

Gaur, San Pedro eguna, eskualdeko zenbait herrietako jaietan beren egun nagusia ospatuko dute. Asteasun, Leaburun eta Urkizu ekitaldiak egingo dira beren zaindariaren omenez. Horrela, meza nagusia izango da hiru herrietan. Jatea eta edatea ere festa guztietako ohitura denez, elizkizunaren ondorengo hamaiketako egitarau guztietan egongo da.

Hamaiketakoak eta gero egitarauak ezberdinak izango dira. Leaburun, esaterako, toka txapelketa egingo da. Bi sari banatuko dira, irabazleari eta herriko lehenengoari. Hiru jaurtiketa egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Lehenengo frogara gisa izango da, baina balioa izango du berdinketarik izanez gero. Asteasun txapelketarik ere izango da, kasu honetan herriko mutikoen arteko pilota partidak. Urkizun bazkari herrikoia egingo dute trikitilariak eta bertsolariak alaiturik.

## EGITARAUA ▶ GAUR

## ASTEASU

11:00. Txistularien diana.

11:15. Meza nagusia. Gero Elizmendin hamaiketakoa. Ondoren herriko mutikoen arteko pilota partidak.

18:30. Herriko musikarien kalejira.

23:00. Mariachi Real Azteca taldearen kalejira. Ondoren, musika emanaldia Herriko Plazan.

## LEABURU

11:00. Meza nagusia.

Ondoren herriko dantzarien dantza saioa, hamaiketako Ostatuan eta Toka Txapelketa.

17:00. Ume jolasak eta txokolatada.

## URKIZU

09:00. Kanpaiak joko dira.

11:00. Meza nagusia.

Ondoren hamaiketako.

14:00. Bazkaria. Trikitilariak eta bertsolariak alaituko dute eguna.

ANOETA ▶ POLITIKA

## Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua izango da Rafa Uribarren

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako diputatu nagusi, Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik, Rafael Uribarren Axpe Anোটako zinegotzi ohia izendatu du Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu. Diputatu berriaren kargu hartze ekitaldia, beneraren ezarpe-

narekin, bihar bertan, goizeko 11.00etan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Tronu aretoan egingo da. Rafa Uribarren Arrasaten jaio zen 1952an, baina Anoetan bizi da aspaldi eta herri horretan 12 urtez zinegotzia izan da. 10 urtez legebiltzarkidea izan da Gasteizen eta GBBko burukidea da.



Rafael Uribarren. HITZA

LEABURU ▶ GIZARTEA

## Udako ludoteka martxan jarri da eta uztailearen 29a arte iraungo du

Zenbait irteera interesgarri antolatuko dituzte hilabete guztian zehar

## ERREDAKZIOA

Leaburun udako ludoteka martxan jarri dute. 3tik 14 urte bitarteko haurrak hartzen dute parte ekitaldietan. Uztailearen 29a arte bilduko dira, asteleheneretik ostiralera, 10:00-etatik 13:00etara. Oraindik izena emateko aukera dago. Horretarako udaletxeko 943 67 59 31 zenbakira deitu behar da.

Ludotekaren baitan zenbait irteera antolatuko dira. Horrela, besteak beste, uztailearen 1ean eta 22an Villabonako igerilekura joango dira. Bertara joan nahi dutenek 4 euro ordaindu behar dituzte garraioarengatik eta 1,50 euro igerilekuan sartzeagatik. Uztailearen 8an



Leaburun urtean zehar hainbat ludoteka egiten dira. HITZA

Txolarre Irratia bisitatuko dute. Uztailearen 15ean Belauntzara joango dira txotxongilak ikustera. Uztailearen 19an Mahala baserrira joango dira, bertako produktuak nola egien diren ikustera. Uztaile-

ren 20an Ulibarri-Ganboako urtegiara irteera egingo dute. Ludotekako haurrez gain, gurusoak eta joan nahi duen oro dago gonbidatuta. Irteeretara joateko ludotekako begiraleei eman behar zaie izena.

Jai zorionsuak pasa!  
Okindegia - Kafetegia - Cozologia  
Ireki berria. Zai gaituzue!  
**KABELA**  
Nagusia, 3 - Tel. 943 69 64 05  
ASTEASU

**Iturri-Ondo**  
ONDO PASA SANPEDROAK!  
Tel.: 943 69 13 31 • 20159 ASTEASU

**TOLARE-SAGARDOTEGIA**  
Jatorrizko Sagardoa  
**SARASOLA** ondo pasa sanpedroak!  
Sagardotegia - ASTEASU  
Tel.: 943 69 02 83  
Zumalikardi Baserria - ANOETA  
Tel.: 943 65 26 22  
Larunbata eta igandetan eguerdian irekita

TRANSPORTES  
**IRVRZYN SL**  
Asteasu Industriegunea,  
A area 3, zenbakia  
Tel.: 943 69 42 03  
Faxa: 943 69 44 11  
20159 ASTEASU  
e-mail: irurzun@irurzun.net • www.irurzun.net

**TXORTU**  
Lantegiak, S. Coop.  
Piezen mekanizaketa eta Muntaketa  
Industri poligonoa,  
A area, 9, zbk  
Tel.: 943 69 17 79  
Faxa: 943 69 33 87  
ASTEASU

**talleres garmendi, s.l.**  
**OXI EBAKETA - OXICORTE**  
Asteasuko Industrialdea B-52  
ASTEASU  
Tel.: 943 69 11 61 - 943 69 10 69  
Faxa: 943 69 11 35  
P.K. 172 • E-mail: garmendiox@terra.es

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**  
Irudietan. Sanjoanetako eta HITZA Pilota Txapelketako argazkiak ikus ditzakezue gure webgunean, Irudietan atalean.  
**Agenda.** Eguneko eta hurrengo egunetako deialdiak ikus eta sar ditzakezue agendan.

**Irazu Ardoak**  
Tokt-Alai etxea, 1 esk  
ASTEASU  
Tel.: 943 69 19 40

ABALTZISKETA ▶ KIROLA

# «Giro atsegina» zaldi lasterketako ligaxkako hirugarren proban

Abaltzisketa eta Amezketaren arteko errepidean burutu zen igandean, beroa zaldientzat «handiegia» izan zelarik



Iaz Bidegoianen eginiko zaldi lasterketa. O. ESKITXABEL

## NOELIA LATABURU

Igandean Zaldi Lasterketen Ligaxkako hirugarren proba burutu zen Amezketaren eta Abaltzisketaren artean. Igoera 2,5 kilometrotakoa izan zen. Proba honetan ligaxkako partaideek zein partaide ez diren zaldunek hartu zuten parte. Hasiara batean ligaxkako 17 zaldunek eman zuten izena, baina azkenean Josu Castañares eta Iñaki Izagirre ez ziren lasterketan atera. Jon Lizasok, berriz, ez zuen lasterketa amaitu eta, ondorioz, ez zuen puntu-rik eskuratu.

Lehen sei sailkatuen artean denak ligaxkakoak izan ziren, bat izan ezik. Igor Baron da bera (laugarren sailkatu zena);

gainontzekoek, beraz, puntuatu egin zuten. Lehenak 5 puntu, bigarrenak 4, hirugarrenak 3, bosgarren eta seigarrenak 2, eta gainontzekoak puntu 1. Ligan parte hartzen ez dutenen artean hiru zaldun aritu ziren: Mikel Urkiaga, Igor Baron eta Ignacio Irastorza.

Liga honen barruan aritzen den Garikoitz Lasak azaldu duenez, «giro polita sortu zen bertan bildu zen jende guztiari esker, baina beroa handiegia izan zen zaldientzat». Bestalde, ligaxkako zaldun faborito batzuk atera ez zirenez, «dasterketaren maila ez zen besteetan bezain ona izan». Halaber, eskerrak luzatu nahi izan dizkiote Abaltzisketako Garmendi-Txiki baserriko Josek eskainitako

## SAILKAPENA ▶

### ABALTZISKETAKO PROBA

Zaldunak	Zaldia
1. Juanito Aginagalde	Cantera
2. Aitor Odriozola	Selin
3. Josu Lizaso	Baia
4. Igor Baron	Galer
5. Asier Mujika	Lur
6. Igor Castañares	Hegoaize

## ZALDI LIGAXKA ▶

### SAILKAPEN OROKORRA

Zalduna	Puntuak
1. Xabin Lazkano	8
2. Iñaki Izagirre	8
3. Aitor Odriozola	8
4. Juanito Aginagalde	6
5. Josu Lizaso	5
6. Garikoitz Lasak	4
7. Xabin Gogorza	4
8. Pedro Jose Saizar	4
9. Millan Telleria	3
10. Pedro Antonio Virgala	3
11. Anjel Altuna	2
12. Ion Lizaso	2
13. Txomin Zubia	2
14. Igor Castañares	2
15. Jose Manuel Iriarte	2
16. Asier Mujika	2
17. Iñigo Agirrezabalaga	1
18. Xabier Lazkano	1
19. Asensio Saizar	1
20. Xanti Telleria	1
21. Josu Castañares	0
22. Garikoitz Sukia	0

laguntzari, antolaketa gainera. Hurrengo hitzordua Asteasun izango da hilaren 17an. Finalean lehen hamabi sailkatuak egongo dira, lekua oraindik erabakitzeko badago ere.

ABALTZISKETA ▶ JAIK

# Korrikan eta monozikloan ohiko apustu berezian

Abaltzisketa eta Amezketaren artean burutu zen; bi korrikalariak irabazi zuten lehia



Jon Lekuona monozikloaren gainean. LORE AGIRREZABAL/UROLA-KOSTAKO HITZA

## N. LATABURU

Jon Lekuona monozikloan eta Imanol Artola eta Egoitz Iztueita korrikalariak aurrez aurre. Hau izan zen San Joan jaietan abaltzisketarrek egiten ohi duten aurtengo apustu berezia. Monozikloa Amezketatik gora abiatu zen Abaltzisketara. Aldi berean bi korrikalarietako bat aurkako norabidean abiatu zen beheruntz. Bertan bigarren korrikalariak

erreleboa hartu zuen. Lehena nor ailegatu Abaltzisketara, horrek irabaziko zuen. Amaiera borrokatua izan zen eta azken unean korrikalariak aurre hartu zuen. Ondoren, hiru partaideek jaso zuten saria.

Jende andana bildu zen apustu berezia ikustera. «Urte urte gauza bitxiak antolatzen saiatzen gara eta arrakasta handia izaten dute beti ere», azaldu du Iñaki Artola antolatzaileak.

## ABALTZISKETA ▶

### Txekorraren zozketaren zenbakia atera da

Abaltzisketako eskola txikiaren aldeko zozketa bat antolatu dute herrian. Saria txekorra izango da eta zenbaki irabazlea igaro berri diren San Joan jaietan eman zuten jakitera, 4.654 zenbakia, hain zuzen ere. Txartel hau duenak sariaren bila pasa daiteke dagoeneko.

## IBARRA ▶

### Sendi Ekintzako giltzak jasotzeko azken eguna

Sendi Ekintzak sarraila aldatuko duela-eta, bazkideei giltza berria jaso beharko dutela jakinarazten zaie. Gaur izango da azken eguna 19:30etik 21:00etara eta 6 euro ordaindu beharko da. Agertzen ez denak 15 euro ordaindu beharko ditu eta ordurarte ezingo da sartu.

**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, 800 errepika, kaxetara, denda, jantzi... eta era guztiakotako erlaxatze bakozi gehiagok euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.bai.euskarari.org](http://www.bai.euskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**

hitza

MURTENGO TOUR-A MEDITERRANEOAN EDO KANARIAR ISLETAN AMATUKO DA!!

tropela.net

QUO

hitza

## BERASTEGI-IBARRA ▶ KULTURA



**Altzariak eta eskuz eginiko ohiak.** Ibarra Kultur Etxean zaharberituriko hainbat altzari eta eskuz eginiko era guztietako ohiak ikus daitezke. I.TERRADILLOS



**Egur taila.** Berastegiko Gaztainondo elkarrean egurra landu dutenek eginikoak ikus daitezke: kutxaxoak, forma desberdinetako erlojuak —horien artean pala batean eginikoak—, armarrak... ikus daitezke. I.TERRADILLOS



**Koadroak.** Ibarra erakusketan pintura tailerrekoak eginiko koadro ugari jarri dituzte herritarrek ikusteko; gai desberdinetakoak eta kolore anitzekoak dira. I.TERRADILLOS



**Apaingarriak.** Eskulan tailerrean zaharrak zirenak apaindu eta margotzen eta berriak sortzen ikusi dute; lanparak, ontziak, kubak... ikusi ahal dira Ibarraoan. I.TERRADILLOS



**Zaharberriak.** Berastegin ere era sakotako apaingarriak ikus daitezke; teila zaharrak hartu eta pintatuz itxura polita ematen ikusi dute ikasleek besteak beste. I.T.

# Ikasitakoa jendaurrean erakusteko unea

Eskulan tailerretan egindako lanak jarri dituzte ikusgai Ibarra Kultur Etxean eta Berastegiko jubilatuen elkarrean

## IÑIGO TERRADILLOS

Asko eta asko izaten dira tailer desberdinetan izena eman eta hilabeteetan makina bat gauza egiten ikasteaz gain denborapasa polita aurkitzen dutenak bertan. Ikastaro horiek amaitzean ohitura izaten da egin dituzten lanak jendaurrean aurkeztea, eta horren adibide dira Berastegi eta Ibarra, egunotan bi herri horietan erakusketak

antolatuta baitituzte herritar guztiek ikasleen lanak ikus ditzaten.

Ibarra, Kultura eta Gazteria Sailak antolatuta hainbat ikastaro antolatu dira 2004-2005 ikasturtean, eta bertan landu dutena ikusgai jarri dute Benito Izagirre kultur etxean. Antolatu dituzten ikastaroetan ehun bat pertsonak hartu dute parte, eta besteak beste, honako jarduerak eskaini dira: pintura,

altzarien errestaurazioa, egur taila, argazkigintza, ehoziariak, eta eskulanak. Ikastaroari amaiera emateko egindako lanaren erakusketaren inaugurazioa eta partaideentzat *luncha* egin zen pasa den ostiralean eta ikastaroetako parte-hartzaile ugari bertaratu zen. Horrela, datorren ikastaroan lan-tegietan parte hartzeko interesa duten pertsonak bertan lantzen dena ikusteko aukera

paregabea dute uztailearen 8a bitarte, 09.00etatik 13.30era Ibarra Kultur Etxea bisitatuz.

Berastegin ere eskulan tailerretan egindakoa ikus daiteke Gaztainondo jubilatuen elkarrean arratsaldean. Hainbat ikastaro burutu dituzte bertan Udalak lagundurik, eta gazteek nahiz 80 urte bitarteko helduek hartu dute parte, 30 inguru. Pasa den urteko iraillean hasi eta ekainean bukatu dituzte tailerrak eta datorren astebururarte izango da zabalik bertan landutakoen erakusketak. Egurra landu dutenen obrak azpimarratu behar dira, kutxak, erlojuak, armarrak... era guztietako marrazkiak eta izenak dituztela. Egur tailaz, zaharberituriko altzariak, eskuz egindako ohiak, teilak erabiliz egindako apaingarriak... ere ikus daitezke.

## TOLOSA ▶

## Bixente Latiegi apaiz euskaltzalea hil da

## ERREDAKZIOA

Igandean hil zen Gasteizen Bixente Latiegi Areso 86 urteko apaiza. Valencian jaio bazen ere, ia bizitza osoa Tolosan egin zuen. Elizaren historiaz hamar tomoko liburua idatzi zuen eta Euskerazaintzaren sortzaileetako izan zen Tolosan Kardaberaz taldeak egindako bilera batean. Gasteizko Eskola Politeknikoan zuzendari eta irakasle izan zen urte askotan. Atzo izan ziren bere hileta elizkizunak Tolosan.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarra. Osasun etxea: 672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leiza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

### ▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leiza): 608 873016

### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

## HEZKUNTZA ▶

**Musika eskolako matrikulazioa irekita dago**

Hurrengo ikasturtean, Aralar musika eskolan matrikula egiteko epea zabalik dago, uztaila guztian zehar. Matrikulazio orriak eskura daude Karrape Irratian eta bertara joan eta izena hantxe ematearekin nahikoa da. Edozein musika tresna jotzen edota, abesten ikasi nahi izanez gero, adin guztientzat, zabalik dago epea.

## LEITZA ▶

**Batasunako batzarra egin behar dute bihar**

Bihar, osteguna, 20:30etik aurrera, Leitzako Batasunak batzarra egingen du Aurrreran, jorratuko dituzten gaiak, Euskal Herriko egoera eta hurrengo ikasturterako ildo politikoaren eztabaida izanik.

## GIZARTEA ▶

**Elkartasun zozketak baditu zenbaki sarituak**

Sahararekin Elkartasuna taldeak aurreko hilabetetan saldu dituen boletoek badituzte, zenbaki sarituak. Hilaren 24an egin zuten zozketa Xorroxin Irratian eta zenbaki sarituen zerrenda Karrape Irratian dago eskura. Sari bakoitzeko, Leitzaldekoak ez ezik, Malerreka, Bortziri eta Larraungo jatetxeetan egiteko bina afari dira, 23 lekutarako denera.

## LEITZA ▶ KAXETAKO FESTA



XXI. Mus Txapelketako irabazleak. J. ASTIBIA



Txintxurrinan, Gorritzarango festaren ezaugarri nagusia, gazte-gaztetandik hasten dira. J. ASTIBIA

# Gorritzaranen festa aparta

Bertakoen parte hartze bikainarekin, egun ederra bota dute igandean

JAIONE ASTIBIA

Aparta. Holaxekoa izan zen igandean Kaxetan egin zuten Gorritzarango festa. Eguraldia ere ezin hobea egin zuelarik, makina bat ikuskizun eta gustura ibiltzeko aukera eman zituen egunak: egitarau oparoari, bertakoen umorea eta festarako gogoia gehituz, nahaste ezinhobea suertatu zen.

Auzoko festa izanik, pestarlek ere baziren bertako hainbat baserritan, etxeko guztiak eta lagunak biltzeko baliatzen baitute aukera, etxe askotan; eta bestela ere, zerikusi joandako jendearekin, festa jendetsua izan zuten, eta mota askotako ekitaldiz hornitutakoa gai-

nera: haurrentzat jokoak, lagun artean, fin asko jokatutako norgehiagoka herri kiroletan, mus txapelketa, Mikel Salaberrriaren eskutik datzaldia, trikilitariak, zozketak, sari banaketak... Hori guztia bazkaria tartean zela.

Hala ere, Gorritzarango ezaugarri berezi eta bitxia, Euskal Herrian beste inon eza gutzen ez dena ausarki, Txintxurriñe izanen da, zalantzarik gabe. Eta apartekotasun horren adierazle izan zen beste behin ere, tenore horretan bertan bildu zen ikusle kopurua bera: txanpon bat eta igeltsu zati bat besterik ez da behar, baina arrastoa ukitu gabe, esku bakarraren gainean jarri



Indarra, oreka, biguintasuna... Trebetasuna eskatzen du. J. ASTIBIA



Egun guztian, erromerian dantzarako aukera izan zuten. J. ASTIBIA

eta txanpona ahalik eta urrutien eramateko, modu askotako trebezi handiak behar dira. Tikitatik hasi ere, hasten dira hotetan, mutiko nahiz neskatok.

Iuntzearekin batera iparrara sartu zuen, eta txokolata banatu zuten denentzat, gauerdian arte dantzaldiari eusteko indarrak berritzeko.

## iragarki laburrak ▶



**Abaltzisketa.** Sei etxe atxiki: sukualdea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan; hiru logela, batek bainua du, bainugela

eta bi terraza bigarren solairuan; bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

**Anoeta.** Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukualdea, terraza eta garajea aukeran.

**Asteasu.** 1.050 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko eta 250 m<sup>2</sup>-ko solairu artean duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresnaz eta hobekuntzekin hornitua.

**Alkiza.** Familia bakarreko etxea, eraikitako 300 m<sup>2</sup>, 4.000 m<sup>2</sup>-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m<sup>2</sup>, bi partzelatan.

**Beasain.** 45 m<sup>2</sup> erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala salgai.

**Belauntza.** 1.050 m<sup>2</sup>-ko pabilioia

salgai; oso argitsua.

**Belauntza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Prestatuta.

**Berrobi.** 50 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Moldatua.

**Berastegi.** 100 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko borda salgai, berritua, 75.000 m<sup>2</sup>-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko alertze pinuarekin.

**Donostia.** Saguesen, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.

**Errioxa.** Hormillan, Naxeratik 3 Km-tara, 11 etxe erantsi salgai, beren lorategiarekin eta urbanizazioa igerilekuarekin (151.000 euro).

**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera, bizitzera sartzeko, garajea aukeran.

**Lasarte.** Hirugarren solairuan, 65 m<sup>2</sup> erabilgarriko etxebizitza salgai Oztaran kalean. Kanpokaldera.

**Lizartza.** Eraikuntza berrikoa, 350 m<sup>2</sup>-tik hasita, 14.000 m<sup>2</sup> pabilioi salgai.

**Naxera.** Bost solairu, igogailua, bokoa eta terraza zabaleko azken etxearen eskaintza eta salmenta.

**Tolosa.** Iurre, 98 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Kanpokaldera, igogailua, trasteleku eta garaje marrarekin.

**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

**Tolosa.** Gernikako Arbolan, 155 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinen, 110 m<sup>2</sup>-ko

etxebizitza salgai. Kanpokaldera eta, eguzkitasuna. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

**Tolosa.** Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m<sup>2</sup>-koa. Kanpokaldera, igogailua eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, duplexa estreinatzeko.

**Tolosa.** Letxuga kalea, 105 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, berritzeko premia.

**Tolosa.** Apataerrek, 1. go solairuan etxebizitza eta 2. ean duplexa dituen berrikuntza, garajea eta lur-sailarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamentuak, 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.

**Urretxu.** 780 m<sup>2</sup>-ko pabilioia, 300 m<sup>2</sup>-ko salairu-tartea. Guztia istalaluta eta erakusketa zabalarekin.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Tolosa (Amaroz).** *Un poco de iniciativa* antzezlanaren Amarozk Antzerki Astearen barruan, 22:00etan auzo ebekan Amarozk Antzerki Artisauen eskutik.

**Tolosa.** KZgunea 8:00etatik 14:00etara egongo da zabalik gaur. Bihartik aurrera 8:00etatik 10:00etara. Internet ikastaroetarako izen-ematea zabalik dago.

**Tolosa.** Tolosa CFK binakako 37. Pala Txapelketa antolatuta du Berazubiko frontoian. Izen-ematea larunbata arte: bulegoetan 17:00etatik 20:00etara (Berazubini, 943 67 17 49) edo 607 447 677 telefonoan (Pello). Prezioa: bazkideek 10 euro, ez bazkideek 20 euro.

**Tolosa.** Mokorora udal musika eskolan matrikula epea zabalik bihar arte.

SANPEDROAK

**Asteasu.** Goiz eta arratsaldean haur parkea; txistularien diana 11:00etan; meza nagusia 11:30ean; ondoren Elizmendin hamaiketako; gero herriko mutikoen arteko pilota partidak; herriko musikari kalejira 18:30ean; Mariachi Real Azteca taldearen kalejira 23:00etan; ondoren, musika emanaldia Herriko Plazan.

**Leaburu.** Meza nagusia 11:00etan; ondoren herriko dantzarien dantza saioa; hamaiketako Ostatuan eta toka txapelketa; 17:00etan ume jolasak eta txokolatada. **Tolosa (Urkizu).** Kanpaik 9:00etan; meza nagusia 11:00etan; ondoren hamaiketako; bazkaria 14:00etan; trikitaliariek eta bertolariak egun osoan.

GUARDIAK FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti. Lizarraga 7. 112.  
Tolosa. Olarreaga, J. Martin J. Iraola 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

**Txolarre (FM107, FM101)** 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: Juan Kruz Igerabide, herri kirolak, sanpedroak, bertolaritza, agenda... 19:00. Errepublikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Sanjoanetako kontu batzuk

**TOLOSA ▶** Jaietako hainbat kontu gelditu dira oraindik sartu gabe; oraingoan zezenketak, bordondantzako liburua, toka eta squash berriak dakartzagu



Cayetano zezenkoa hilda erortzeko zain igandean. J.SAIZAR



Bordondantzari buruzko liburua asko saldu zituzten sanjoanetan. HITZA



50 tokalari baino gehiago aritu ziren igandean Trianguloan. HITZA

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, agurrak... argitaratzeko etorri HITZARA



**ZORIONAK**  
Xabier Urkizar (Ibarra).  
Gaur urtebete.

Muxu handi bat aitabo, amabxo, altona, amona eta izeba-osaben partetik.



**ZORIONAK**  
Xabier Urkizar (Ibarra).  
Gaur urtebete.

Zure lehengusu Jessi, Nicole, Juan Carlos eta Unaiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Amaiar (Tolosa).  
Gaur urtebete.

Pa handi bat aitabo, amabxo eta familia guztiaren partetik.

JOXEMI SAIZAR

**S**anjoanek bukatu dira, baina oraindik zer kontatu ematen dute. Hainbat lehiaketa eta txapelketak emaitzak oraindik ez ditugu jaso. Zezenketetan jende dezentze bildu zen hiru egunetan. Errekortari saio oso ikusgarria izan zen, burtzikarien zaldiek ere ikusmin handia piztuz zuten zezen-plazaren inguruan eta igandeko zezenketan Javier Conde ate handitik atera zen, Nuñez del Cuvillo etxeko zezenekin bi belarri lortuta.

Bordondantzari buruzko liburua salgai jarri zuten Aranzadi zientzia elkarteak eta Udaberri dantzari taldeak San Joan egunean gurdi batean. Erosi zuten lagun guztiak, baita ere Tolosako alkateari eskeinitako laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiete. Egun osoan 2.400 euro bildu zituzten eta erosi ez zuenarentzat liburua

ohiko liburudendetan salgai dagoela jakinarazi dute.

Toka txapelketa igandean jokatuta eta 50 lagun baino gehiago parte hartuz. Probintzia mailan Eduardo Alvarez izan zen irabazle, ondoren Pedro Oiarbide, Jose Antonio Ugarte-buru, Antonio Amondarain eta Zapa geldituz. Eskualde mailan Zapa tolosarra izan zen irabazle, Juan Zubeldia, Jose Amondarain, Manuel Ugarte eta Fidel Benitoren aurretik.

San Joan bezperan berriz, urteroko San Joan Saria Squash Txapelketa jokatuta zen Igarondo igerilekuan. Maiatzaren 5ean hasita, 22 parte-hartzaile izan ziren eta azkenean Txusti Etxeberriak irabazi zion 3-0 Jesus Gaztearenari. Hirugarren Mixel Lakunza gelditu zen 3-2 irabazita Guillermo Zabalarri. Finalerdietan Etxeberriak 3-0 irabazi zion Lakunzari eta Gaztearenak 3-1 Zabalarri.